

Conciertos

La Plaza de Toros acogió las actuaciones de La Oreja de Van Gogh, Maldita Nerea y El Sueño de Morfeo, entre otros. **PÁG. 72**

BALANCE DE LA 11ª EDICIÓN

JON ARRETXE
IDAZLEA


“Afrikarrak gai dira egoera zailen gaineratik baikorrak izateko”

‘19 Kamera’ da Jon Arretxe idazle bizkaitarraren azken eleberria. Toure afrikarraren istorioak ildo nagusitzat izango dituen sagaren lehenengo liburu hau Bilboko San Frantzisko auzoan girotu nahi izan du idazleak. Erein argitaletxeak euskara nahiz gaztelaniaz kaleratu du liburu.

eleberriaren arteko generoa jorratu zenuen. Kasu honetan, ordea, nobela beltz hutsaz ari gara? Beno, ikuspuntuaren arabera. Izan ere, auzoa Afrika txiki bat dela esan daiteke, nahiz eta Euskal Herrian kokatuta egon. Afrikara joan beharrean Afrika etorri da hona, Afrikatxo horretan murgildu naiz. Azkeneko lan honetan nagusitzen den gaia emigratioarena da, aurretik ere landu duzuna. Zergatik erakartzen dizu gai horrek? Hasteko, protagonista berarengatik. Behin auzo hori aukeratu-takoan, nire buruari esan nion: zer egingo dut, protagonista bezala er-tzain ohia edo detektibe zuri moduko bat jarri? Zerbait desberdina nahi nuen eta afrikar bat protagonista bezala jarzea erabaki nuen. Burkina Fasotik etorritako afrikar bat da, San Frantziskon urte pare bat daramana: patera-pisu batean bizi da, oraindik ez ditu paperak lortu, egoera irregularraren dago... Bere egoera pertsonal ongi janzten du nobela. Pertsonaia horretatik tiratuz, hainbat gauza sartzeko aitzakia nuen, gainera. Bera sasi-igarle bezala hasiko da lanean: begizkoak bota, kendera, maistasuna berreskuratzeko lagundu... Denetarik egingo du eta fartsa hutsa izango da. Berak bada-ki ez dela erreala baina bizirik irau behar du, krisi garaian, gainera. Jendea deitzen hasiko zaio eta kasu oso bitxiak sortuko dira bere inguruan, horietako batzuk San Frantziskon bertan eta besteak bertatik aterako dutenak, Bilboko beste muturrera, eliterra.

Touren egoera horretaz baliatzen zara, beraz, beste hainbat gai jorratzeko. Bai. Mini-trama asko daude liburuan. Ardatz nagusia Toure eta bere egoerak osatzen dute, baina hortik beste trama batzuk sortuko dira: auzo horretan dauden trafikatzailen arteko lehiak daude, afrikar trafikatzailen baten gorpua trenbideko zuloan agertuko da, prostituta gazte bat zakarrontzi baten hilda aurkituko dute... Elementu asko sartu ditut, ideia saga bat idaztea delako.

Umorea erabildu duzu, istorio gordinak kontatzeko. Bai, eleberri hau umore klabean ulertu behar da. Alde batetik, tragikoa da eta egoera oso gordinak azaltzen dira baina, bestalde, afri-



‘19 Kamera’ saga baten lehenengo liburu izango da. ARGAZKIA: IBAN AGUINAGA.

karrak oso positiboak dira, nahiz eta miserian bizi... Afrikan nahiko ibili naiz eta afrikarrak egoera zailen gaineratik barre egin eta alai egoteko kapazak direla ikusi dut, nolabait gauzak aurrera eramatenko gai dira, imaginazioa edo gogoarekin. Protagonista ere izaera horretakoa da.

Umorea erabilgarria da gai edo egoera latzez hitz egiteko? Baietz uste dut. Egoeren drama malla murrizten laguntzen du. Nire aurreko nobelak oso dramatikoak ziren eta erregistroa aldatzeko gogoia neukan eta hori egiten saiatu naiz.

Zer nolakoak dira gainerako pertsonaiak? Denetarik aurkitu daiteke. Touren erdi maiale bilakatzen den prostituta gazte bat dago, putetxe bitxi batean lan egiten duena: leku oso dekadentea da, Gorte kalean oraindik gelditzen diren horietako bat, zulo bat, non prostituta zahar-rrak, yonkiak eta abar biltzen diren. Neska gazte horren izeba da putetxe horren jabea. Auzo hori

asko aldatu zen heroína sartu zenetik. Horren aurretik bestelakoa gutziz omen zen, kabaret eta klub errespetagarri asko zeudela, biko-teak eta jende dotorearentzat. Hor geratu dena da azken hondakinak... Bestalde, opera munduko andre zuri batek ere Toure kontratatzen du, bere senarra Gorte kalera joaten dela susmatzen duela eta detektibe lana egin dezan. Andre horren bitartez operan sartuko da, ahots pribilegiatua duelako. Emakumea beraz aprobetxatuko da, gizon objektu beza-

“Bilboko San Frantzisko auzoa aukeratu dut, ghetto handi bat delako”

“Eleberri hau umore klabean ulertu behar da, egoera gordinak azaltzen diren arren”

África en el corazón de Bilbao

Prostitución, drogas, asesinatos, riqueza, ambición, miseria... Lo mejor y lo peor de la sociedad se unen en la última novela negra del escritor vizcaíno Jon Arretxe. Publicado tanto en euskara como en castellano, *19 Cámaras* constituye la primera de una saga de novelas que tendrán como hilo conductor las aventuras de Touré, un africano afincado en el barrio de San Francisco. Siguiendo el instinto de supervivencia, el protagonista se hará pasar por hechicero, lo que le arrastrará a diferentes situaciones que resaltarán el contraste entre lo cómico y lo trágico. Una novela construida por muchas pequeñas historias, ambientadas en lo que, tras la llegada de la heroína, pasó de ser el barrio de moda a ser la zona donde reinaban la droga y la prostitución. “Hoy en día es un barrio que, en su mayoría, está habitado por africanos”, afirma el escritor, “los comercios, las calles, el ambiente... Es una pequeña África en el corazón de Bilbao”. Arretxe, afincado en el pueblo navarro de Arbizu desde hace casi una década, ha redactado su novela desde el propio escenario donde se desarrolla la trama. **•M.M.P.**

la hartuko du eta dirua eskainiko dio. Andre horren senarra ere ezagutuko du protagonistak, hotel baten zuzendaria dena, aristokraziako lagunak daukana...

Pertsona errealetan oinarritzen al zara pertsonaiak sortzeko?

Bai. Pertsonaia nagusia sortzeko ez, ordea. Mahmoud Toure da protagonista, Malin daukadan lagun baten izena da. Baina bere itxura, izaera eta gainerakoa nik asmatu dut. Ezagutzen ditudan afrikarretan oinarritu naiz horretarako, filosofía afrikar horretan. Protagonistaren inguruko pertsonaia gehienak bai, errealetatetik hartutakoak dira.

Eta egoeri dagokionez ere, errealetatean aurkitzen duzu inspirazio nagusia?

Bai. Liburuaren hasieran gertatzen den istripu bat, adibidez: lapur gazteko baten istorioa da, kola esnifatan ibiltzen diren gazte magrehtar horietako bat. Zerbait lapurten saiatzen da eta ertzainek ikusten dute. Orduan, bere burua salbatzeko, ibaira salto egiten du eta ito-tzen da, ez dakielako igeri egiten. Irudi guztiak kamerek jasotzen dute. Horrelakoak gertatzen dira Bilbon.

Izenburuarena, ‘19 Kamera’, hortik dator?

Bai. Delinkuentzia kontrolatzeko kamerak jarri ziren, garai batean. Horren inguruan polemika handia sortu bazen ere, azkenean 19 kamera jarri ziren: izen egokia iruditu zitzaizkidan eleberriarako. Narratzaileetako bat Toure da, lehenengo pertsonan; eta hirugarren pertsonan, ikusten dutena hotz-hotzean kontatzen duten kamerak daude. Normalean ikusten ez diren gauzak, gauzez edo leku ezkutuetan gertatzen direnak, kamerek jasotzen dute.

MIREN MINDEGIA
IRUNEA. Prostituzioa, droga, emigratioa, hilketak... Jon Arretxe (Basauri, Bizkaia, 1963) Bilboko San Frantzisko auzoko dekadentzia islatu nahi izan du saga baten lehenengo liburu izango den *19 Kamera* eleberrian. Toure protagonista afrikarraren eskutik, idazleak hainbat istorioz jositako istorio handi batean murgiltzen gaitu, umore klabean idatzitako eleberri beltz honetan.

Aurrekoetan ez bezala, ‘19 Kamera’ zure azken eleberria hurbil kokatu duzu, Bilbon bertan. Nolatan aida-keta hori?
Nire nobela beltzak beti kokatu izan dira urrun, batzuetan sobera urrun. Nire gustuko lekuak izaten ziren normalean: Paris, Lisboa, Istanbul, Munich, Tangerang, Bama-koren... Bazen ordua horrelako nobela beltz bat Euskal Herrira ekartzeko.

Eta Bilbo aukeratu zenuen...
Bai, Euskal Herrian dagoen hiri handiena eta nahaste handiena daukana da. Eta Bilbo barruan, dudarik gabe, San Frantzisko auzoa zen aproposena: hori argi ikusi nuen lehenengo momentutik, ghetto handi bat delako. Bilbo erdi-erdian dagoen arren, kaletik ikusten duzun gehiengoa, %80a, afrikarra da. Komertzioak, kaleko presentzia, giroa... Denak dauka kutsu afrikarra. Gainera, auzo horretan betiko prostituzio klasikoak egon da, Gorte kalean. Lehen lokal pilo bat zeuden, orain ez hainbeste. Giroa nahiko dekadentea da, prostituta zahar asko dago, bezerorik ere ez daukaten horietakoak. Droga kontua ere hor dago, heroína trafikoa asko egin da bertan. Auzo horrek osagarri guztiak dauka nire estiloko nobela beltz batetarako.

Aurreko eleberrian, ‘Tangerko ametsak’, nobela beltza eta bidaia